

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Lehenengo Mundu Gerraren (LMG) kausak, ezaugarriak eta bizimodua azaltzea, lehen mailako ikusentzunezko iturrietatik informazioa inferatuz.	1.1. <i>Ikasleak, LMGren kausak, bandoak eta ezaugarriak identifikatu ditu, informazio iturri desberdinak erabilita (irakurketak, bideoak, etab.).</i>
2. XX. mendeko lehen erdialdean harturiko hainbat erabaki aztertzea, testuinguru historikoa kontutan harturik.	2.1. <i>Ikasleak LMGren garaiko bizimodua inferatu eta deskribatu du, informazio iturri desberdinak erabilita (irudiak, testuak, bideoak, etab.).</i>
3. Europak XX. mendean zehar eta LMG ondoren konkretuki, bizi zuen egoera politikoa ezagutzea eta honek Bigarren Mundu Gerra (BMG) gertatzearekin izan zuen lotura zuzena ulertzea.	3.1. <i>Ikasleak, BMG gertatzearen kausak, bandoak eta ezaugarriak identifikatu ditu, informazio iturri desberdinak erabilita (irakurketak, bideoak, etab.).</i>
4. Taldean, BMGn zehar gertatutako gertakarien inguruko informazioa bilatzea, hau deskribatzea eta honek gerran eduki zuen garrantzia identifikatzea.	4.1. <i>Ikasleak gerra bateko gertakari baten inguruko informazio bilketa eta analisisa egin du taldeka, informazio esanguratsua sailkatuz eta gehigarria deskartatuz.</i>